

EGAK C1 2026

Certificat de compétence en basque

Épreuves de niveau C1

Qu'est-ce que le Certificat de compétence en basque ?

Le dispositif du Certificat de compétence en basque-Euskara gaitasun agiriak (EGAK) sert à vérifier et à valider le niveau de capacité linguistique en Euskara. Il est mis en place sur la base du Cadre Européen Commun de Référence (CECR) qui a prévu 6 niveaux : A1, A2, B1, B2, C1 et C2. Le niveau C1 est celui de l'utilisateur expérimenté et autonome d'une langue, juste avant celui de la maîtrise.

Comme les années précédentes, deux sessions d'épreuves de niveau C1 seront organisées cette année, si les conditions le permettent.

Le Dispositif* s'appuie sur un partenariat entre l'Office Public de la Langue Basque, l'Université de Pau et des Pays de l'Adour et l'Université de Bordeaux Montaigne, et est enregistré au Répertoire spécifique de France compétences pour 5 ans par décision du 29 septembre 2022 : code NSF 136 (RS6106).

Qu'est-ce que l'examen de niveau C1 ?

Le niveau C1 est celui de l'utilisateur expérimenté et autonome d'une langue, précédant celui de la maîtrise excellente de la langue.

L'examen de niveau C1 mesure la compréhension à l'écrit et à l'oral, l'expression écrite et orale, ainsi que l'interaction entre deux locuteurs.

Quelles compétences certifie-t-il ?

L'utilisateur autonome est capable de comprendre une grande gamme de textes longs et exigeants, ainsi que de saisir des significations implicites. Il est capable de s'exprimer spontanément et couramment, sans effort pour chercher ses mots. Il peut utiliser la langue de façon efficace et souple dans sa vie sociale, professionnelle, scolaire ou universitaire.

Il peut s'exprimer sur des sujets complexes de façon claire et bien structurée. Il doit maîtriser les mécanismes d'organisation, d'articulation et de cohésion de l'expression écrite et orale.

À qui s'adressent ces épreuves ?

À toute personne sachant bien parler et écrire la langue basque, soit acquise comme langue maternelle avec alphabétisation par la suite, soit comme langue apprise à l'école, soit enfin comme langue apprise par un adulte en centre de formation. Il n'est pas possible de se présenter à deux niveaux de certification lors d'une même session d'examens.

* Ce Dispositif ne comprend pas d'enseignement en langue basque, mais l'OPLB peut habiliter des organismes de formation pour la préparation à cette certification.

EGAK C1 2026

Non? Noiz? Nola? Honako egutegia urtean zehar moldatzen ahalko da, antolaketa beharrek hala eskatzen badute.

Lehen deialdia

Izen emateak:
2026ko martxoaren 1etik 31ra
www.mintzaira.fr
webgunean

Izen emate saria: 35 €
Ordainketak banku-biramenduz egiteko epea:
apirilaren 17a

Azterketarien behin betiko
izen-ematearen jakinarazpena
mezu elektronikoz

Azterketaren lehen zatia:
Maiatzaren 30ean
Baionako Fakultatean
Platanoen bidea, 8
8, All. des Platanes
64100 Bayonne - Baiona

Ahozko azterketa:
Ekainaren 20an
Baionako Fakultatean
Platanoen bidea, 8
8, All. des Platanes
64100 Bayonne - Baiona

Azterketako azken emaitza
mezu elektronikoz: uztailaren 2an

Bigarren deialdia

Banakako izen emateak:
2026ko agorriaren 17tik
irailaren 6ra
www.mintzaira.fr
webgunean

Izen emate saria: 35 €
Ordainketak banku-biramenduz egiteko epea:
irailaren 11a

Azterketarien behin betiko
izen-ematearen jakinarazpena
mezu elektronikoz

Azterketaren lehen zatia:
Irailaren 26an
Baionako Fakultatean
Platanoen bidea, 8
8, All. des Platanes
64100 Bayonne - Baiona

Ahozko azterketa:
Urriaren 17an
Baionako Fakultatean
Platanoen bidea, 8
8, All. des Platanes
64100 Bayonne - Baiona

Azterketako azken emaitza
mezu elektronikoz: azaroaren 15ean

Aurkezteko baldintzak:
2026/12/31n berantenez 17 urte beteak izatea
Frantziar Estatuan, sortu, bizi, lanean edo ikasten aritzea

Beharrezkoak direnak:
Nortasun agiri bat eta izen-emate agiria
Ezabatzen ez diren tresnak ekartzea
Tenorez heltzea!

EGAK C1 2026

Euskara Gaitasun Agiriak

C1 mailako probak

Zer dira Euskara Gaitasun Agiriak (EGAK)?

Euskarazko hizkuntza gaitasuna egiaztatzeko egina den dispositibo da EGAK, Europako Erreferentzia Marko Bateratua (EEMB) oinarritua.

Aitzineko urteetan bezala, C1 mailako Euskara Gaitasun Agiriaren azterketak antolatuko dira aurten, bi azterketa deialdi irekiren bitartez, antolaketa baldintzek uzten badute.

Dispositiboak, *Euskararen Erakunde Publikoak, Paeeta Aturriko herrialdeetako unibertsitatearekin eta Bordeaux Montaigne Unibertsitatearekin eraman partaidetza-lanean oinarritua da eta France Compétences erakundeak bere Errepertorio espezifikoan 5 urterako erregistratu du 2022ko irailaren 29ko erabakiz, NSF 136 kodearekin (RS6106).

Zer da C1 mailako azterketa?

EEMBak 6 maila ditu: A1, A2, B1, B2, C1 eta C2. C1 maila, hizkuntza baten erabilzaila gaituarena da, hain zuzen adituena mailaren aitzinekoa.

C1eko azterketak neurtzen ditu ahozko adierazpena eta entzunaren ulermena, irakurriaren eta idatziaren ulermena, baita bi pertsonaren arteko ahozko elkarreragina ere.

Zein gaitasun egiaztatzen du C1 mailako agiriak?


C1 maila erdiesten duena, gai izan behar da era askotako testu luzeak irakurtzeko eta orobat, testu horietan esanahi inplizituak antzemateko. Badaki jariatasunez eta bat-batean gauzak adierazten, erranmolde egokia aurkitzeko ahalegin handirik egiten ari denik sumatzen ez zaiolarik.

Hizkuntza malgutasunez eta eraginkortasunez erabil dezake, helburu sozial, akademiko eta profesionalekin. Testu argiak, ongi egituratuak eta xeheak ekoizteko gai da, baita gai konplexuei buruzkoak ere, testuaren antolaketa, artikulazio eta koherentzia-mekanismoak zuzen erabiliz idatzian eta ahozkoan.

Nori zuzendua zaio C1 mailako agiria?

Euskara ongi dakien orori: izan euskara etxean eta eskolan ikasi duena edo alfabetatua izateko bere baitarik landua duena, edota heldua izanki, euskaltegian ikasia duena. Ezinezkoa da deialdi berean maila bat baino gehiagora aurkezteak.

* Dispositiboak ez du euskara irakaskuntzarik eskaintzen, baina EEPK formakuntza organismoek, gaitasun agiriatarako prestatzaila izateko gaitasuna eman diezaike.



C1 mailako azterketa-ereduak azterketa idatzia eta ahozko azterketa ditu. Biak gainditzea beharrezkoa da EGAk C1 lortzeko. Hizkuntza gaitasun guziki gainditu behar dira ere: idatzian eta ahozkoan, ekoizpena eta ulermena.

EGUNAK / PROBA KOPURUA

EGA azterketak, bi fasetan iragaten dira, antolaketa baldintzek besterik eskatzen ez badute.

- Lehen egunean proba idatzia eta entzunaren ulermena.
- Bigarren egunean ahozko proba.

AZTERKETAREN LEHEN EGUNA

I. Entzunaren ulermena: 30 minutu inguru

II. Azterketa idatzia: 3 orenez Bost ariketa ditu

1. Idazlana
2. Gutuna
3. Esaldiak
4. Sinonimoak
5. Irakurriaren ulermena

AZTERKETAREN BIGARREN EGUNA

Ahozko adierazpen proba

Bi ariketa ditu

1. Gai baten ahozko azalpena
2. Bat-bateko elkarrizketa saioa

Azterketariak 20 bat minutu izanen dute probaren lehen ariketa prestatzeko. Aztertzaileen aitzinean, binaka eginen dute proba. Probaren iraupena 20 bat minutukoa da, orotara.

Nolako azterketak? Zer neurtzen da?

IDATZIA

1. Idazlana

Bi gai izanen dira aukeran eta azterketariak horietako bat garatu beharko du. Kandidatuak 250 hitz inguru idatzi beharko ditu.

Ariketa hau gainditzea baitezpadakoa da azterketa idatzia eskuratzeko.

30 punturen gain neurtua den idazlanaren ariketa hau gainditzeko, 15 puntu erdietsi behar dira gutienez.

2. Gutuna

Bi gai izanen dira aukeran eta azterketariak horietako bat gutun gisa idatzi beharko du. Kandidatuak 150 hitz inguru idatzi beharko ditu.

10 punturen gain neurtua den ariketa.

Idazlana eta gutunaren kalifikaziorako ondoko alderdi hauek hartuko dira kontuan: **zuzentasuna, egokitasuna, diskurtsoaren koherentzia/kohesioa eta aberastasuna. Azterketa idatzia gainditzeko, baitezpadakoa da azterketariak bi ariketa hauek egin ditzan.**

3. Esaldiak

Emandako esaldien baliokidea hautatu beharko du azterketariak :

- a) Bost esalditan, bakoitzaren egitura baliokidea duena hautatu beharko du, beste lau aukeraren artean.
 - b) Bost esalditan akatsak zuzendu beharko ditu. Akatsik gabekoa hautatu beharko du lau aukeraren artean.
- Erantzun zuzen bakoitzak puntu erdiko balioa baitu, 5 punturen gain neurtua den ariketa hau gainditzeko, 2,5 puntu erdietsi behar dira gutienez*.

4. Sinonimoak

Testu laburretan, azpimarratuak diren hamar hitzen sinonimoa aurkitzeko, bakoitzeko proposatuak zaizkion lau hitzen artean bat hautatu beharko du azterketariak.

Erantzun zuzen bakoitzak puntu erdiko balioa baitu, 5 punturen gain neurtua den ariketa hau gainditzeko, 2,5 puntu erdietsi behar dira gutienez*.

5. Irakurriaren ulermena

Testu batzuk eskainiko zaizkio azterketariari, horiei buruzko galderari erantzun diezaien.

10 punturen gain neurtua den ariketa. Erantzun okerrenatik ez da punturik kenduko. Proba hau gainditzea baitezpadakoa da azterketa idatzia eskuratzeko.

Euskaltzaindiaren arauak dira zuzentasunaren oinarrian.

6. Azterketa egokituak

Behar bereziren bat duten azterketariak azterketa berdintasunez egiteko parada ukan dezaten, egokitzapenak ezar daitezke, denboran nahiz baliabideetan, eskatu beharreko hizkuntza gaitasun-maila murriztu gabe betiere. Egokitzapen eskaera, izen-ematearen unean egin behar du azterketariak, izen-emate fitxan berean eta ondoko egunetan beharrezko mediku-agiriak izen emate epeetan helarazi beharko ditu.

* Sinonimoen eta esaldien ariketen kalifikazioak bilduko dira eta bietatik batean 2,5 puntu lortu ez bada ere, bien artean gutienez 6 puntu lortuz, gainditutzat emanen dira. Ariketa hau gainditzea baitezpadakoa da azterketa idatzia eskuratzeko.

AHOZKOA

1. Entzunaren ulermena

Azterketa idatziaren egunean eginen da ariketa hau.

Grabaketa zatiak entzuten ditu azterketariak. Zati bakoitzari buruz galderak eginen zaizkio eta erantzun zuzena hautatu beharko du, aukera anitzeko moldean emanen zaizkion erantzunen artean.

5 punturen gain neurtua den ariketa. Erantzun okerrenatik ez da punturik kenduko.

2. Ahozko adierazpena: bi aztertzailez osatu epaimahaiak, azterketariak binaka entzuten ditu

a) Gai baten ahozko azalpena.

Azterketari bakoitzari gai desberdin bat emanen zaio idatziz, 20 minutuz prestatzeko. Kandidatu bakoitzak bere aldia, egokitu zaion informazioaren 5 bat minutuko azalpena eman beharko du, honako elementuak kontuan hartuz:

- gaiaren aurkezpen zuzena, aberatsa eta ongi egituratua egitea,
- mamiaren puntu funtsezkoenak deskribatzea,
- iritzi edo gaiaren hedadura posiblea proposatzea kandidatuak bere baitatik. Kandidatu bakoitzak frogatu beharko du ere besteak egin duen aurkezpena ulertu duela, aztertzailek eginen dion galdera bati erantzunez.

b) Bat-bateko elkarrizketa saioa.

Aztertzailek gai bat eskainiko diete azterketariari. Azterketari bakoitzak gai horri buruzko ikusmolde bat garatu beharko du. Azterketariak elkarrizketan ariko dira, emana zaien ikuspuntura egokituz. Elkarrizketa edo eztabaida bideratzeko edota orekatzeko, aztertzailek parte har dezakete. Azterketariak, bien artean, guti gora behera 7 minutuz arituko dira.

Proba hauek gainditzea baitezpadakoa da ahozko azterketa eskuratzeko. Ondotik, bien arteko batez-besteakoa eginen da.

EGAk C1: azterketako proben puntuazioa		
Azterketa-probak	Ariketa	Gehienezko puntuazioa
Proba idatziak	1) Idazlana	30
	2) Gutuna	10
	3) a Esaldi berriak (5 esaldi)	2.5
	b Esaldi zuzenduak (5 esaldi)	2.5
	4) Sinonimoak (10 baliokide)	5
	5) Irakurriaren ulermena	10
	Idatzia orotara	60
Ahozko probak	Entzumena	Entzunaren ulermen ariketa
	Ahozko adierazpena	Ahozko ariketak: azalpena + elkarrizketa
		Ahozkoa orotara:
		(Entzunaren ulermena + mintzamina) x2
		50
Azterketa orotara		100

Azken emaitza Bikain/Ongi/Aski ongi/Gainditua edo Ez gainditua izanen da.

Deialdi bateko idatziko kalifikazioak, urte bereko bigarren deialdirako soilik mantenduko dira.